



B1 MAILAKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK

ULERMENA


 B1	EBALUAZIO IRIZPIDEAK (Zer ebaluatzen dugu?)	GUTXIENeko IRIZPIDEAK
ENTZUMENA	<ul style="list-style-type: none"> • Zailtasunik duen ahoz emandako instrukzio arruntak lehendabiziko ulertzeko. • Gai den gai ezagunei zein ezezagunei buruzko narrazioaketa deskribapenak ulertzeko • Bere kidekoekin hitz egiteko zailtasunik duen ulermen aldetik. • Ongi moldatzen den inguruko hiztunekin eta aise eusten dion hariari. • Erregistroak ongi bereizten dituen. • Egunerokoak ez diren gaietatik sortutako elkarrizketak ongi ulertzen dituen, nahiz eta oso lagunarteko testuinguru batzuetan ñabardurak antzemateko arazoak izan. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ahoz emandako instrukzio arruntak lehendabizikoan ulertzen ditu, ez du errepikapen beharrik izaten. • Bere kidekoekin solasean aritzeko behar adinako ulermen maila du eta solasaren hariari jarraitzen dio. • Bere inguruko jatorrizko hiztunekin aritzean, ordea, horiek moldatu egin behar izaten dute erritmoa, lasaiago eta argiago ahoskatuz edota zerbait errepikatuz. • Gaia aldatzean, tarteka, haria galtzen du. • Elkarrizketa hasteko esapide ohikoenak bereizten ditu, eta baita hitza hartzeko edo emateko erabiltzen diren lokailuak ere. • Intonazioaren laguntzaz, zenbait elementu afektiboren (seriotasuna, txantxa, haserrea eta abar) berri jasotzen du, eta entzundakoaren arabera testuingurua ere inferitzen du.
IRAKURMENA	<ul style="list-style-type: none"> • Arazorik duen maila honi dagozkion testu-generoak bereizteko. • Testuak irakurri ahala, nondik norakoaz eta informazio xeheaz jabetzen den nahiz eta irakurketaren egiturak ulermena zaildu. • Ikasleek maila honetako hizkuntza- eta testu-adierazpenak menderatzen dituztenean, ez dute inolako oztoporik testua ulertzeko. • Testuan ager daitezkeen hizkuntza-erregistroak erraz bereizten dituen edo ez. 	<ul style="list-style-type: none"> • Badaki bereizten maila honi dagozkion testu-generoak. • Bereizi egiten ditu, era berean, testuaren ideia nagusiak eta osagarriak, eta jabetu egiten da, oro har, kolpetik irakurrita, testuaren nondik norakoaz. • Xehetasun adierazgarrienak ere atzematen ditu ongi egituratutako testu argietan. • Ñabardura batzuk gal ditzake eta, oso noizbehinka, baita ideia nagusiren bat ere. • Gehienetan hizkuntza-erregistroak ezagutzeko gai da.

IDAZMENA

	EBALUAZIO IRIZPIDEAK (Zer ebaluatzen dugu?)	GUTXIENeko IRIZPIDEAK
Egokitasuna	<ul style="list-style-type: none"> ● Ongi bereizten dituen erregistroak. ● Eskatutakora egokitzen den. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Noiz edo noiz gaitik aldentzen bada ere, edukiak eskatutakora egokitzen da, informazioa, trataera eta adiera egoki erabiltzen baititu. ● Badaki, oro har, erregistro mota nagusiak (formala eta informala) bereizten.
Koherentzia eta kohesioa	<ul style="list-style-type: none"> ● Diskurtsoaren egitura eta antolaketa egokitzen zaion testu-generoari. ● Informazio koherentea ematen dakien. ● Uneko kohesio-forma erabiltzen dakien eta ez duen galtzen diskurtsoaren haria. ● Ideiak lotzean aparteko zailtasunik duen. ● Puntuazio-markak egoki erabiltzen dituen. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Diskurtsoaren egitura eta pasarteen antolaketa egokitu egiten zaizkio testu-generoari; ideiak koherenteak dira, ez daude kontraesanean eta gaien ardazten dira, desbideratze handirik gabe. ● Aurrerabidea lineala da, eta behar adinako informazioa eskaintzen du, eta behar izanez gero, adibideak. ● Batzuetan, zenbait koherentzia-arazo ditu, bigarren mailako ideiak garatu behar dituenean. Horrek, hala ere, ez du irakurketa zailtzen. ● Badaki ideia nagusiak eta azalekoak bereizten eta lotzen oinarrizko testu-antolatzaile egokiak erabiliz. ● Erreferenteak nahikoa zehatz azaltzen dira, eta egokia da aditz-denboraren erabilera testu osoan zehar. ● Oinarrizko puntuazio-markak (puntua, koma, bi puntuak...), gehienetan, ongi erabiltzen ditu.

<p>Aberastasuna: egiturak eta hiztegia</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Maila honetako testu-genero guztietan idazten dakien. • Testu aberatsak ekoizten dituen, ideien, egituren edo lexikoaren ugaritasunari esker. 	<ul style="list-style-type: none"> • Behar besteko hizkuntza-baliabideak izan arren, molde bereko josterez baliatzeko joera erakutsiko du batzuetan, eta, ideien nahiz egitura edota lexikoaren kopurua ikusita, antzeman egiten zaio oraindik ere baduela zailtasunik testua dagokion neurrian osatzeko. • Zehatz samar aritzeko nahikoa lexiko du, nahiz eta gaiak abstraktuak direnean zailtasunak izan ditzakeen.
<p>Zuzentasuna</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zuzen erabiltzen dituen maila honetako adierazpideak. • Hutsegiteak ez diren, inondik inora, sistematikoak. • Ortografia eta puntuazio-markak zuzen erabiltzen dituen. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ohiko ekintza eta funtzioak betetzeko, behar beste hizkuntza-baliabide erabiltzen ditu. • Testu ulergarria osatzen du, baina izan dezake, oraindik, mailari dagokion hutsegite sistematikoren bat edo beste (hiperzuzenketa, egituren arteko interferentziak, baliabide batzuen funtzionalitate anitza...). • Lexikoaren mailako hutsegiteek ez dute komunikazioa eteten. • Zuzen erabiltzen ditu ortografia- eta puntuazio-markak, batzuetan hutsegiteren bat egin badezake ere. • Hutsegiteak, oro har, koiunturalak izaten dira, eta ez dute esanahia iluntzen.

MINTZAMENA

	EBALUAZIO IRIZPIDEAK (Zer ebaluatzen dugu?)	GUTXIENKO IRIZPIDEAK
Egokitasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Arazorik duen bere jarduna, eguneroko testuinguru ezagunetan, egoki gauzatzeko. • Egoera guztietan egokitzen duen hizketaldia. • Erantzuten dion gaiari. 	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarreraginezko testuinguru orokorretara egokitzen da, nori zuzentzen zaion, zertarako eta gaiaren nolakoa kontuan hartuz, eta badaki lagunarteko zein ezezagunen arteko erregistro estandarrean ezagutza eta kortesia mailak bereizten. Zenbaitetan zail gertatzen zaio egoera guztietara egokitzea. • Gaiari inoiz ihes egiten dion arren, harira itzultzen da gehienetan. Informazioa ekintza komunikatiboak eskatzen duenera egokitzen du, nahiz eta aldika errepikapenak eta itzulinguruak egin. • Batzuetan, zailtasuna izaten du lexikoa testuingurura egokitzeko.
Koherentzia eta kohesioa	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarrizketa arruntak eragozpenik gabe burutzen dituen, oinarrizko kohesio-formak zuzen erabiliz. • Diskurtsoa ongi antolatuta, koherentea eta josia den eta ez duen zailtasunik ideia nagusiez gain, hainbat xehetasun ere adierazteko. • Lokailuak eta juntagailuak egoki erabiltzen dituen, ideiak garatzeko eta erlazionatzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarrizketa arruntak burutzen dakiela frogatzen du: hasiera noiz eman, nola jarraitu, nola bukatu, baita gaiez aldatzean jarraitzen ere. • Horretarako, hainbat esapidez baliatzen da, oinarrizko kohesio-formak erabiliz. • Kateamendua nahikoa lineala da. • Zerbait kontatu edo deskribatzean, diskurtsoa hari nagusi baten inguruan (denbora, espazioa, prozesua...) antolatzen du, nahiz eta behar bezala josia ez izan. Oro har, haren jarduna koherentea izaten da: behar adinako informazioa eskaintzen du komunikazio-asmoa betetzeko, eta ideiak ez dira errepikatzen, ez daude kontraesanean, nahiz eta egin

		ditzakeen zenbait nahasketa, atzera-, aurrera-pauso eta zuzenketa; nolana ere, entzuleak ez du jarraitzeko eragozpen handirik izango.
Jarriotasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Testuinguru ezagunetan erritmo naturalean aritzen den. • Testuinguru arrotzetan geldialdiak kudeatzen dakien. • Salbuespen bat gorabehera, diskurtso osoan eusten dion erritmoari. 	<ul style="list-style-type: none"> • Testuinguru oso ezagunetan eta ongi bereganatu dituenetan, jarduna jarraitua eta soltea da. • Testuinguru berri eta arrotzagoetan, berriz, moteldu egiten da diskurtsoa eta geldialdiak egiten ditu, adiera eta egitura egokiak bilatzeko, zuzentzeko... Geldiune horiek betelan-hitzez (errepikapenak, mmm, eh, zera, bada formaz) estaltzen ditu zenbaitetan.
Aberastasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza-baliabide multzo zabala duen, gai ezagunen inguruan aritzeko. • Nahiko lexikoa duen elkarrizketetan ere aritzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Behar besteko hizkuntza-baliabide multzoa du, gai ezagunen inguruan aritzeko. • Elkarrizketetan, ez da erantzun laburretara mugatzen. Zehatz samar aritzeko, nahikoa lexiko du; hala ere, gaiak abstraktuak direnean edota egoerak ezohikoak, errepikapen eta itzulinguruka aritzen da.
Zuzentasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Eragozpenik duen eguneroko testuinguru ezagunetan gai arruntez hitz egiteko. Noizbehinka hutsegiteak eta erdarakadak esaten baditu ere, hauek ez dute eragozpenik sortzen komunikazioan. 	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza-baliabideen gainean itxurazko kontrola du ohiko funtzioak betetzeko, nahiz eta noizbehinka akatsen bat edo beste egin. Dena den, hutsegiteek ez dute esanahia eragozten. • Aditz-sistemak, ergatiboa, nominalizazioa eta konpletiboa ondo erabiltzen ditu, nahiz eta hitz egin aurretik pentsatu behar izan eta, zenbaitetan, oker erabili. Oro har, egiten dituen akatsak kointuralak dira. • Ahoskerari eta intonazioari dagokienez, zenbaitetan jatorrizko hizkuntzaren edota beste hizkuntzaren baten eragina edo interferentziak antzematen zaizkion arren, ulergarria da diskurtsoa. • Lexikoaren ezagutza testuinguru ezagunetara mugatzen da, eta ñabardurak azaldu behar dituenetan, erdarakadak eta bestelako ordainak erabiltzen ditu.